

EUSKOTRENEK GAUEKO ZERBITZUA INDARTUKO DU SONDIKAKO INAUTERIAK DIRELA ETA

Euskotrenek martxoaren 8an eta 9an Kukullaga/Etxebarri - Sondika artean gaueko trenen zerbitzua indartuko du Sondikako Inauteriak direla eta.

Martxoaren 8tik 9rako gaua

Ostiraletik larunbaterako gauean gau osoan zehar trenen zerbitzua egongo da. Kukullaga/Etxebarri-Sondika maiztasuna ordu batekoa izango da eta Kukullaga/Etxebarri eta Lezama artean bi orduz behin.

3. Linean zerbitzua gau osoan zehar eskainiko da. Ostiraletako ohiko zerbitzua 30 minutuz behin tren bereziekin osatuko da.

Martxoaren 9ko 00:00ak baino lehenago, zerbitzuak eragina izan dezake martxoaren 8ko emakumeen greba dela eta. Komenigarria da egun horretarako aurreikusitako gutxieneko zerbitzuak begiratzea.

Martxoaren 9tik 10erako gaua

Txorierriko linearen gaueko ohiko zerbitzua (bi orduz behin) Sondika eta Kukullaga/Etxebarri artean tren bereziekin indartuko da. Tarte honetan zirkulazioak ordu betez behin egongo dira.

3. Linean zerbitzua larunbat gaueko ohikoa izango da, zirkulazioak gau osoan zehar 15 minutuz behin izanik.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete geltokietan eta geralekuetan, konpainiaren www.euskotren.eus web gunean, Euskotreneko APP ofizialean, eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean.

[Igorpen data](#), osteguna, 2019ko martxoaren 7a